



Lazpitagoikoa (-a) etxebizitza

Aldacrak: Lazpitagogeaskoa
Ahozkoa: Láspitte goíkue



43°11'28"

2°36'17"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería Lazpita-Gojeascoa y sus pertenecidos radicantes en jurisdicción de la anteiglesia de Berriz,...cita en la Cofradía de Sarria, es de una vivienda compuesta de piso bajo con cocina, cuarto portalada y cuadra principal con habitación, pajar y camaron; ocupa con la accesoría o arnaga de enfrente, el zaguan y una campa contigua doscientos cuarenta y medio estados, ó nueve áreas y quince centiáreas..."

DJE, 4/48 or. (1878)

Bizitza bakarreko baserri honen inguruko lehen erreferentzia dokumentala Bizkaiko su-errolde-tan aurkitzen dugu: 1704koan eta 1745ekoan *Laspita de Suso* agertzen da, eta, mende amaieran, berriz, *Lazpitagogeazcoa* (1781, BAHF, A26/3.). Hortik aurrera, izen horrekin ezagutu da "*Lazpitak*" izenez ezaguna den multzoaren goiko partean dagoen etxea: *Lazpitagojeascoa* (1863, DJE, 1/ 27. or.) eta 1967ko Udal-errol-dan *Lazpita goxeascoa*. Auzotarren artean, *Láspitte goíkue* moduan ezagutzen da.

Baserri handi honetan aldi desberdinetan egindakoaren arrastoak antzeman daitezke, hirulau mendetakoak, XVI. mendetik aurrerakoak, nahiz eta oinarrizko egituren *Lazpita* (**Ikus Lazpita**) edo *Iturbegoitia* (**Ikus Iturbegoitia**) baserrietako tankera ikusten den. Horregatik, be-

reizi behar ditugu aldamenetako bi gorputzak, oso kalitate onekoak. Harria erabili zuten ezker-raldeko leiho inguru guztietan, kantaletan, eskuma aldeko beheko solairuan eta alboetako fatxadetan. Eta erdian, aurreko biak elkartzeko, atarte, egurrezko dintelduna; egurrezkoa den moduan gaineko egitura guztia, konbinaturik harria (luzituta eta pintatuta egongo zena) eta gorengoko adreilua. Erdialdeko eta eskuma aldeko baoetan, harriaren orde, egurra erabili zuten. Eta egurrezkoak dira fatxada nagusiko hiru balkoiak, teilatuaren hegal zabalaren babesean jasoak, bat eginaz habeeekin eta hauei eusteko besoekin, etxeari simetrikotasuna, kolo-rea eta bolumen joko polita emanaz.

toponimia

Euskaraz, denboran zehar, era asko egon da "goiko aldea" izendatzeko eta hori, askotan, etxe izenetan ikusten da aipu zaharrenetan egun erabiltzen ez diren goitia edo goieaskoa moduko formak agertzen direlako. Kasu honetan XVIII. mendetik XX. mende arteko aipuetan goiaskoa dugu, nahiz eta gaur egun goikoa esan. Goieaskoa eta beaskoa hitzak oso erabiliak izan ziren eta badirudi osagaiak goiko eta be(he)ko direla tartean indarra emateko as hizkia dutela (**Ikus Lazpita**).